

Borondate digitala

Idoia Landa Reza
Zuzenbide Zibileko irakasle laguntzaile doktorea (EHU)

Gizakiak naturaren legeari aurre egin nahi izan dion arren, norbanakoaren bizitza mugatua da. Goiz ala berandu iritsiko da heriotza, eta funtsezkoa da guztia lotuta izatea. Digitalizazioaren ondorioz, erronka juridiko berriak identifikatzen dira, besteak beste, hildakoaren sare sozialetako profilen edo hodeiko artxiboen kudeaketa. Horrela, kontzeptu berri bat sortzen da: borondate digitala, zeinak hildakoaren eduki digitalaren administrazioa beraren nahiaren arabera egitea ahalbidetzen duen. Borondatea non jaso edo adierazi behar den eta sarbidea nork izango duen zehaztea da gakoa. Lege-hutsune horrek agerian uzten du berariazko araudi bat behar dela pertsonen borondatea errespetatu eta segurtasun juridikoa bermatzeko. Araudia egungo mundu digitalera egokitu behar da.

GAKO-HITZAK: Internet · Borondatea · Heriotza · Eduki digitala.

Digital will

Although humans have wanted to oppose the law of nature, individual life remains limited. Sooner or later, death will arrive, and it is essential to have everything in order. As a result of digitalization, new legal challenges have emerged, including the management of a deceased person's social media profiles or cloud-stored files. This has led to the creation of a new concept: the digital will, which allows the management of a deceased person's digital content according to their wishes. The key aspects are specifying where the will should be stored or expressed and who will have access to the content. This legal gap highlights the need for specific regulation to ensure that individuals' wishes are respected and legal security is guaranteed. Such regulation must be adapted to the realities of the current digital world.

KEY WORDS: Internet · Will · Death · Digital content.

1. Sarrera

Iraganeko bizitzaren parte ziren argazki-albumak, kaseteak, bideo-zintak, gutunak zein papera eta bolaluma. Orain, *vintage* gisa identifika daitezke horiek guztiak. Bizitza modu fisikoan eta presentzian partekatzen zen: kafe baten bueltan egiten ziren eguneraketak lagunartean, testuinguru pribatuan eta intimoan. Une horiek fisikoak eta pertsonalak ziren. Egun, sare sozialek hartu dute protagonismoa, une pribatua publiko bihurtuz.

Nerabezarotik pertsona orok du mugikor bat patrikan. Komunikazio-tresna bat izateaz gain, mundu digitalera konektatzen gaituzten aplikazio ezberdinak biltzen dituen kutxa da. Milaka kontu ditugu: sare sozialetako profiletakoa, hodeiko zerbitzuena, posta elektronikoarena edota plataforma digitalena. Teknologia berriek etengabeko interakzioa ahalbidetzen dute, baina askotan ez da pentsatzen eduki digital horren etorkizunarekin (Varela, 2015). Online eremura egin du salto gizarteak, baina jauzi horrek sortzen dituen arazo berriei jabetu gabe. Gizakiaren eta zuzenbidearen arteko lotura inbrikatuak (*ubi societas ibi ius*) argi adierazten du araudiak egungo errealitateari erantzun behar diola (Bravo, 2016).

Espainiako Kode Zibilaren 30. artikulua arabera, *nasciturus*-a (sortua baina jaio gabea) pertsona bihurtzen da funtsezko bi baldintza betetzen direnean: bizirik jaiotzea eta amaren sabeletik askatzea. Ordura arte, ez da eskubideen titularra, nahiz eta babes juridiko mugatua izan zenbait alorretan. Legezko baldintzak bete eta nortasuna eskuratzean, nortasunaren eskubideen titular bihurtzen da haurra (Serrano, 2005). Pertsona hiltzen denean, zuzenbideko subjektu izateari uzten dio (KZ 32. art); legez, gorputz bihurtzen da, eta araudi zibilerako pertsona gisa desagertzen da.

Fenomeno horrek agerian uzten du gizakiaren izaera juridikoaren behin-behine-kotasuna: bizi den bitartean, eskubideen titularra da; hiltzean, titularitatea galtzen da. Desagertze juridiko horren kontrastean, haren eduki digitalak (sare sozialetako profilak, mezuak, hodeian gordetako dokumentuak, etab.) denboran iraun dezake, bizitza fisikoa gaindituz. Legeak pertsona gisa aitortzeari uzten badio ere, gizabanakoaren ondare digitalak bere horretan dirau (Martinez, 2019), arazo juridiko eta etiko berriak sortuz.

Testuinguru horretan sortzen da borondate digitalaren kontzeptua: pertsona batek bere eduki digitala hildakoan nola kudeatu nahi duen adierazteko tresna. Borondate digitalak aukera ematen du eduki digitalaren sarbidea zein ezabaketa modu argian zehazteko, eta horrek hildakoaren nahia errespetatzea bermatzen du. Beraz, ezinbestekoa da alde aurretik bakoitzaren borondate digitala zein den adieraztea, hots, nola kudeatu behar den eduki digitala sortzailea hil eta gero.

Pertsona hil arren, haren sare sozialetako kontuak mantendu egiten dira. Face-book «hilerri digital» gisa identifikatu da, hildako pertsonen milaka kontu barnebiltzen dituelako. Paisaia digital beltza sortu da: erabiltzen ez diren kontu horiek oroitzapen, publikazio eta datu pertsonalez osatzen dira. Kudeaketari buruzko arau argirik ez dagoenez, interes eta barne-politika ezberdinen talka gertatzen da maiz.

Aztergai den kontzeptua 2018. urtean sortu zen. Zehazki, Espainiako Datu Pertsonalen Babeserako urriaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean DPBLO) 96. artikuluan arautzen da. Nahiz eta araudiak «testamentu digital» kontzeptua erabili, hura ukatu eta «borondate digitala»ren aldeko hautua egin da, lehenengoaren zuzentasun faltagatik. Adieraziko den moduan, ez da oinordetzari erreferentzia egiten dion kontzeptua, beraz, testamentuaren ideia ez da zuzena.

Zorionez edo zoritxarrez, existentzia fisikoak denbora mugatua du. Kontzientzia horrek ezinbesteko egiten du eduki digitalari buruzko borondatea aurrez adieraztea. Erabaki horiek hartzea norbanakoaren ahotsa luzatzeko eta oroimena babesteko modu bat da. Heriotzak, nahiz eta ekidinezina eta unibertsala izan, tabu handienetako bat izaten jarraitzen du. Gizarteak ez dio aurre egiten amaieraren ideari. Onarpen faltak ondorio sakonak ditu: ez dira argitasuna eta bakea ekarriko duten erabakiak hartzen. Pertsona askok ez dute testamentua egiten, eta horrek familian gatazkak, ziurgabetasuna eta prozesu legal luze eta mingarriak sortzen ditu.

Halaber, teknologia berrien eraginez, arazo-maila berri bat sortu da: herritarren irudikapen digitalak ez du preskripziorik. Beraz, borondatea ez bada aurrez adierazten, eduki digitalaren kudeaketari buruzko eztabaidak sortuko dira etorkizunean. Horrek guztiak bizitza bere osotasunean aurrez antolatzearen garrantzia islatzen du. Heriotza ez da helmuga, baina bai ukatu ezin daitekeen amaiera.

Axolagabekeria ez da frustraziotik babesteko bidea. Mundu materialean gelditzen direnzentzako gidaliburua sortu behar da: testamentu tradizionala eta borondate digitala. Oinordetzaren arauak garbiak diren arren, ez da berdina gertatzen borondate digitalarekin. Estatu-mailako araudian borondate digitalaren ideia txertatzea aurrerapauso bat izan zen, baina arauketaren anbiguitasunak galdera ugari sortzen ditu (Santos, 2018), hala nola non jaso daitekeen hildakoaren nahia edo nork duen material digitalera sartzeko aukera. Egungo testuinguruan, beharrezkoa da borondate digitalari buruzko ikerketa juridiko sakon bat egitea, teknologiaren bilakaerak sortzen dituen erronkak identifikatu eta horiei aurre egiteko.

2. Datu Pertsonalen Babeserako araudiaren bilakaera eta irismena

Nazioarteko lehen erreferente handia Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena izan zen. Haren helburua pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatzea zen datu pertsonalen tratamendu automatikoaren aurrean. Gaur egun ere indarrean diren printzipioen oinarriak ezarri zituen: datuen kalitatea, tratamendurako legimititatea eta sarbidea, zuzenketa eta ezabatzeko eskubideak, besteak beste.

Espainian, datu pertsonalen tratamendu automatikoari buruzko lehen araua 1992ko urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoa izan zen. Hasieran, lege organiko horren aplikazioa ordenagailuzko fitxategietara mugatzen zen, artxibo fisikoak barne hartu gabe. Horrek agerian utzi zuen araudia mugatua zela. 1995ean, Europar Batasunean 95/46/EE Zuzentaraua onartu zen. Zuzentarauaren helburua estatu kideen araudiak bateratzeaz eta herritarren eskubideak babesteaz gain, datuen zirkulazio askea bermatzea zen. Zuzentarauaren eraginez, 1999ko abenduaren

13an, 15/1999 Lege Organikoa onartu zen, Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoa, zeinak 1992ko Lege Organikoa indargabetu zuen.

Konstituzio Auzitegiak azaroaren 30eko 292/2000 Epaian, modu zehatzean bereizi zituen datu pertsonalen babeserako eskubidea eta intimitate-eskubidea. Epaian adierazten zenez, intimitaterako eskubideak bizitza pertsonal eta familiarreko eremu erreserbatu bat babesten du. Aldiz, datu pertsonalen babeserako eskubideak beste helburu bat du: herritarrei beren datuen gaineko xedapen eta kontrol-ahalmena bermatzea. Biak ala biak Konstituzioaren 18. artikuluan arautzen dira, baina eduki ezberdina dute.

1995eko Europako Zuzentaraua ez zen modu uniformearen aplikatu estatu kide guztietan, eta horrek babes-mailan desberdintasunak sortu zituen. Ondorioz, Europako Batasunak 2016ko apirilaren 14an 2016/679 Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (DBEO) onartu zuen. DBEOk paradigma-aldaketa ekarri zuen: erregelamendu bat izanik, estatu kide guztietan zuzenean eta modu uniformearen aplikatzen zen, transposiziorik gabe. Besteak beste, herritarren eskubideak indartu zituen (portabilitatea, tratamenduaren mugaketa eta «ahazteko eskubidea» txertatu zituen), enpresen erantzukizun proaktiboaren printzipioa sendotu, eta zigorrak handitu.

Barne-legedia DBEOra egokitzeko, 3/2018 Lege Organikoa onartu zen, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa (DPBLO). Europako Erregelamendua osatzeaz gain, aitzindaria izan den eskubide digitalei buruzko titulu berezi bat identifikatzen da bertan. Era berean, titularraren heriotzaren ondoren egin daitezkeen bi sarbide arautzen ditu: alde batetik, 3. artikuluan hildakoaren datu pertsonalen sarbidea, zuzenketa edo ezabaketa arautzen da. Bestetik, 96. artikulua hildakoaren eduki digitalaren kudeaketaz mintzo da.

DPBLOren 3. artikulua xedatzen duenez, hildakoarekin familia-loturak edo izatezko harremanak dituzten pertsonak, bai eta haren jaraunsleek ere, hildakoaren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak izango dituzte, baldin eta hildakoak berariaz debekatu ez badu edo legeak bestelakorik ezartzen ez badu. Horrez gain, arauak aukera ematen dio interesdunari, bizirik dagoen bitartean, pertsona bat izendatzeko bere heriotzaren ondoren eskubide horiek gauzatu ditzan.

Nahiz eta hildakoaren datu pertsonalak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko aukera arautzen den, ondoren, eremu ezberdinetan gauzatu daitezke eskubide hauek. Zentzu horretan, 38/2012 Dekretuak, martxoaren 13koa, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalek dokumentazio klinikoan dituzten eskubide eta betebeharrei buruzkoak honako hau jasotzen du: hildakoaren familiako kideek eta egitatezko lotura duten pertsonak beraren historia klinikorako sarbidea eskatu ahal izango dute, betiere interesdunak bizitzan zehar horretarako debekurik ez badu ezarri edo legeak ez badu sarbidea mugatzen. Araudiak ez du inolako justifikazio medikorik exijitzen, nahikoa da harreman mota horietako baten baitan kokatzea hildakoaren osasun datuetara sarbidea izateko. Era berean, ez dira harreman horiek

definitu zein mugatzen. Familiako harremana edo egitatezko lotura ezin daiteke nahikoa izan sarbide automatikoa justifikatzeko; behar mediko bat frogatzea eskatu beharko luke legeak (Landa, 2024).

Bestalde, DPBLOren 96. artikulua informazioaren gizarteko zerbitzu-emaeleek kudeatutako eduki digitaletarako *post mortem* sarbidea arautzen du. Ez da datu pertsonaletan oinarritzen zentzu hertsian, baizik eta hildakoaren eduki digitalean (Castillo Parrilla, 2018). Legez izendatutako pertsonak aukera izango dute hildakoaren sare sozialetako kontuak mantendu edo ezabatzeke, baldin eta titullarrak ez badu kontrako adierazpenik egin. Kasu horretan, haren jarraibideak errespetatu beharko dira.

3. Oinatz digitala

lbiltzean gure oinatzak uzten ditugu, mundu digitalean gauza bera gertatzen da. Oinatz digitala bizitzaren aztarna immateriala da: Interneten utzitako urrats, oroitzen eta adierazpen guztien bilduma. Hitz gutxitan, pertsona batek bere bizitzan zehar sarean egindako jardueraren emaitza da, errealtate birtual horretan utzitako arrastoa (Pérez eta Vivas, 2022). Heriotzaren ondoren ere, marraztutako maparen bidexkak ikus daitezke. Hau da, jarduera horrek utzitako aztarnak ikusgarri izaten jarraitzen dute. Beraz, beharrezkoa da alde aurretik egindako bidea ezabatu egin behar den edo ez adieraztea.

Bi dimentsio bereizi ohi dira. Alde batetik, aztarna aktiboa, borondatez partekatzen dugun informazioari dagokiona (argitalpenak edo iruzkinak). Bestetik, aztarna pasiboa, erabat kontziente izan gabe sortzen dena: gure lehentasunak erregistratzen dituzten cookieak, gure konexioa identifikatzen duten IP helbideak, non gauden erakusten duten geolokalizazio-datuak edo zerbitzarietan biltegitratuta geratzen diren kontsumo-ohiturak. Bi dimentsioak lotuta daude eta identitate digitala eraikitzen laguntzen dute.

Erabiltzailearen jarduerak sarean sortutako arrastoak ondare-izaera izan dezake (Banta, 2017), baina ez beti (García, 2017). Hau da, aztarna digitalak ez du automatikoki ondare digitala sortzen. Balio ekonomikoa duten aktibo digitalak (hala nola bankuko kontu elektronikoak edo kriptotxanponak) oinordetzaren parte dira (Ordin eta Oro, 2020). Aldiz, izaera pertsonal eta intimoagoa duten material digitalak (besteak beste, lainoan aurkitzen diren argazkiak, bideoak, dokumentuak edo mezuak), ez dira zuzenean oinordetzan sartzen (Navas, 2020). Hortaz, beharrezkoa da ondare digitalaren eta aztarna pertsonalaren arteko bereizketa argia egitea, kudeaketa juridiko egokia eta norbanakoaren borondatearen errespetua bermatzeko.

4. Identitate digitala

Modu kontzientean edo inkontzientean Interneten izaten dugun interakzio bakoitzak oinatz digitala marrazten du. Sare sozial batean argazki bat argitaratzeak, foro batean iruzkinak egiteak, plataforma batean erregistratzeak edo nabigatzaile

batean bilaketa soil bat egiteak gure identitate digitalari forma ematen diote. Beraz, oinatz digitalaren eta identitate digitalaren kontzeptuak eskutik lotuta doaz.

Identitate digitala pertsonaren irudikapen birtuala da (Batuecas, 2022). Mundu digitalaren barruan gizabanako bat ezagutzea, identifikatzea eta bereiztea ahalbidetzen duten ezaugarri, informazio eta arrastoen multzoa da. Identitate horretan, pertsonak berak esplizituki partekatzen dituen datuak ez ezik (izena, argazkiak, argitalpenak edo sare sozialetako profilak), zeharka sortzen den informazio guztia ere sartzen da: iruzkinak, «gustuko dut», nabigazio-historia, erregistratutako kokapenak edo online aplikazio eta zerbitzuetako jardura. Beraz, espazio birtualean beha daitezkeen portaeretatik abiatuta eraikitzen da.

Kontzeptu honen garrantzia nabarmen handitu da aro modernoan, non komunikazioaren, lanaren eta merkataritzaren zati handi bat ingurune birtualetan gautzatzen den. Ondo kudeatutako identitate digitalak aukera ematen dio norbanakoari harreman profesional zein pertsonalak modu egokian eraikitzeko, eta bere ospe digitala babesteko (Muñoz, 2015). Funtsezkoa da kontzienteki kudeatzea, pribatutasuna eta segurtasuna babesteaz gain, norberaren irudikapen birtuala fidela eta koherentea dela bermatzeko.

5. Eduki digitala

Borondate digitalari esker, heriotzaren ondoren eduki digitala nola kudeatu behar den adierazten da. Hortaz, funtsezkoa da kontzeptuaren oinarria aztertzea. Termino zabala da (Conner, 2010), hainbat elementu deskribatzeko erabil daiteke, hala nola fitxategiak (adibidez, hodeiko biltegitratze-zerbitzuetan dauden irudi-fitxategiak), webguneak, domeinuak, kriptotxanponak, sare sozialetako kontuak eta harpidetza-zerbitzuak (besteak beste, Netflix, HBO edo Spotify-ko kontuak).

Artxiboei dagokienez, informazioaren gizarteko zerbitzu-emaileek kudeatzen dituzten eduki digitaletara mugatzen da. Hau da, kontzeptuak ez ditu barne hartzen fisikoki (USBan edo ordenagailuan) gordetako fitxategiak, baizik eta hodeian biltegitratuta daudenak. Aztergai den artikulua zerbitzu-emaileen kudeaketari egiten dio erreferentzia, beraz, artxiboek lainoan egon behar dute. Oinarrizko baldintza: edukiak plataforman biltegitratuta egon behar du, ez ordenagailu pertsonalaren disko gogorrean edo bestelako euskarri fisikoetan (Moralejo, 2020).

Kategoria horren barruan izaera askotako edukiak biltzen dira. Horietako batzuek ondare-izaera nabarmena dute (adibidez, bitcoinak), baina beste batzuek, hala nola argazkiek, mezu pribatuek eta bideoek, ez dute ondare-izaerarik eta, ondorioz, ezin dira ekonomikoki baloratu. Lehenengoak *mortis causa* eskualda daitezke, oinordetza-zuzenbidearen arau tradizionalen bidez; aldiz, ondarezko izaerarik ez duten edukien egoera konplexuagoa da, are gehiago, sarbidea bermatzeko pasahitzak behar direla kontuan hartuta (Ordelin eta Oro, 2020).

Edukiaren kudeaketa informazioaren gizarteko zerbitzu-emaileen egin behar dute. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 8ko 2000/31/EE Zuzentarauaren 2.b) artikulua arabera, zerbitzu-emailea da informazioaren

gizarteko zerbitzu bat ematen duen edozein pertsona fisiko edo juridiko. Beraz, definizioaren barruan sailkatzen dira, besteak beste, bilaketa-motorrak. Espainiako 34/2002 Legeak, ekainaren 11koak, Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzkoak informazio-gizartearen zerbitzu gisa identifikatzen du elektroniko eta hartzaileak berak eskatuta ematen den edozein zerbitzu. Beste modu batera esanda, zerbitzu hori digitalki eskaintzen da eta erabiltzaileak nahi duenean sar daiteke. Ekipo informatikoen eta telekomunikazio-sareen bidez egiten da. Erabiltzaileak zerbitzua eskatzen du eta erantzun pertsonalizatua jasotzen du.

Kontratu-izaerako obligaziozko harreman bat identifikatzen da (Banta, 2014), zerbitzua eskaintzen duen enpresa (Google, Instagram, Amazon, etab.) eta zerbitzu horiek erabiltzen dituen subjektua lotzen dituen (Otero, 2019). Kontratu horri esker, erabiltzaileak zerbitzu eta eremu birtual bat izan dezake. Nahiz eta interesdunak erabili kontua, azken hau zerbitzu-emaileen jabetzaren parte da (Allegrezza, 2021). Alderdien akordio horretan, titularren kontua transmiti daitekeen edo ez arautzen duten klausulak ezartzen dira. Beraz, hildakoaren kontratu-posizioa da eskualda daitekeena, ez zerbitzuaren jabetza.

Zentzu horretan, Alemaniako Justizia Auzitegi Federalak (*Bundesgerichtshofs*) 2018ko uztailaren 12ko epaian (III ZR 183/17) Berlingo metroan hildako neska adingabe baten gurasoei alabaren Facebook-eko kontura sartzea baimendu zien. Adingabekoa egoera arraro batean hil zen, eta bere buruaz beste egin ote zuen argitzeko, gurasoei sarbidea baimendu zien. Alabak burutu zuen plataformarekin kontratua (García, 2018). Beraz, alabak kontratuan zuen posizioa transmititu zela esan daiteke, ez haren identitate digitala (Resta, 2007).

Bereizketa egin behar da erabiltzaileak eskuratzen dituen kanpoko eduki digitalen (liburu elektronikoak, abestiak, filmak, bideo-jokoak) eta erabiltzaileak berak sortutako edukien artean (blogak, Youtube eta antzeko plataformetan argitaratutako bideoak, Instagrameko argazkiak, etab.). Bi kasuetan erabakigarria izango da zerbitzu-hornitzailearekin harreman juridikoa sortzean onartutako kontratuaren edukia eta jabetza intelektualaren araubidea. Kontua da, inork ez duela kontratua irakurtzen; «irakurri eta onartzen dut» laukia klikatu besterik ez du egiten erabiltzaile arruntak.

Interneten izandako jardueraren ondorioz sortzen dira oinatz digitala, identitate digitala eta eduki digitala. Harreman zuzena dute, baina hiru kontzeptu desberdin dira. Interakzio bakoitzak aztarna bat uzten du. Ekintza horien metaketak zehazten du norbanakoa, zein informazio geratzen den erregistratuta, eta nola kudeatu, gorde edo transmiti daitekeen eduki digitala, baita hil ondoren ere.

6. Egin beharreko bereizketa: testamentu tradizionala eta borondate digitala

DPBLOren 96. artikulua «testamentu» eta «digital» hitzak erabiltzen dituenek, uler daiteke egintza juridikoa egiteko erabilitako formatuari buruz mintzo dela legegilea. Horrela, testamentu digitala online formatuan egindako testamentua dela interpreta daiteke, baina hori ez da zuzena. Testamentu digitalean, pertsona baten

eduki digitalari buruzko borondatea jasotzen da, hiltzen den kasurako, eta online testamentua, aldiz, «linean» egiten den testamentua da (Oliva *et al.*, 2016). Azken aukera hori ez da Kode Zibilean jasotzen, hortaz, ez du balio juridikorik.

Bestetik, «testamentu digitala»ren terminoa erabiltzen den arren hildakoaren nahiari aipamena egiteko, ez da benetako testamentu bat. Testamentu tradizionala egintza juridiko formal bat da, pertsonaren ondarea haren heriotzaren ondoren nola banatu zehazten duena. Aldiz, borondate digitalak pertsona baten material edo eduki digitalari buruzko *post mortem* kudeaketari egiten dio erreferentzia (Arenas eta Ortega, 2019). Beraz, lan honetan «borondate digitala»ren terminoaren aldeko hautua egin da. Kontzeptu honekin, hildakoaren nahia azpimarratzen da, ez hura jasotzeko bidea edo instrumentua.

Testamentua, egilea hil ondoren sortuko den egoera juridikoa arautzeko tresna gisa definitu izan da (Díez-Picazo eta Gullón, 2006). Deklaratzaileak heriotzaren ondorenerako egiten duen egintza juridikoa da. *Mortis causa* xedapenaren muina osatzen du (Lacruz eta Sancho, 1988). Espainiako Kode Zibilak ideia berari jarraitzen dio: pertsona batek heriotzaren ondoren bere ondasun guztiak edo horien zati bat xedatzeko egiten duen egintza.

Borondate digitala ez da testamentu tradizional baten baliokidea, garrantzitsua da bereizketa egitea. Dударik gabe, legegileak hil ondorengo nahiari egin nahi zion erreferentzia, eta horregatik erabili zuen «testamentu»aren ideia, baina hautu edo estrategia okerra izan zen. Sistema berdina errepikatzen da osasun-eremuko aurretiazko borondateen dokumentuarekin (Espainian, 41/2002 Legeak, azaroaren 14koak, Pazientearen Autonomiari buruzkoak arautzen du; Euskal Autonomia Erkidegoan, 7/2002 Legeak, abenduaren 12koak, Osasun Arloko Aurretiazko Borondatee buruzkoak). Dokumentu horrek pertsonari aukera ematen dio bere etorkizuneko osasun-arretari eta tratamendu medikoei buruzko erabakiak aurrez adierazteko. Halaber, heriotzaren ondoren gorputzarekin zer egin erabakitzeko aukera ematen du, hala nola organoen donazioa edo gorputza ikerketarako ematea (Berrocal eta Abellán, 2016). Beraz, borondate aurreratuen dokumentuak pertsonaren bizitzan zehar zein heriotzaren ondoren du eragina. Nahiz eta *post mortem* aplikazio posiblea izan, ez da testamentuaren kontzeptu juridikoan barnebiltzen.

Borondate aurreratuen dokumentuak pertsonaren autonomia eta eskubideak bermatzeaz gain, familiako kide zein osasun-profesionalentzako gidalerroak ezartzen ditu. Horrela, erabakiak pertsonaren nahiaren arabera hartzen dira. Beraz, gatazkak saihesteko tresna gisa identifika daiteke. Funtsezkoa da dokumentua eguneratua egotea, pertsonaren borondatea beteko dela ziurtatzeko.

Testamentuaren edukia adierazpen tipikoen eta atipikoen artean sailka daiteke. Ohiko adierazpenak ondasunei buruzkoak dira, baina ukaezina da testamentuan xedapen atipikoak ere sartzen direla, hots, ondarezkoak ez diren xedapenak (Álvarez, 2002). Legeak testamentu-forma aldarrikatzen du ezohiko xedapenak jasotzeko. Horrela, testamentuan ondarezko izaerarik ez duten hainbat adierazpen jasotzea posible izan arren, hala nola seme-alaben aitortza edo tutoreen izendapena, haren helburua nagusia testamentugilearen patrimonioa kudeatzea da.

Borondate digitalak, berez, izaera independentea du. Alegia, testamentu tradizionalak jasotzen ez dituen arloak zehaztu eta heriotzaren ondoren pertsonaren nahia betetzeko tresna da. Borondate aurreratuen kasuan argi ikusten da edukiaren ezberdintasuna, nahiz eta heriotzaren ondoren ere funtzio bat betetzen duen, hots, *post mortem* aplikazioa izan. Kasu horretan, legegileak tresna juridiko propio bat sortu zuen, baita erregistroa ere. Aldiz, ez du gauza bera egin testamentu digitalarekin. Hona hemen testamentu tradizionalaren eta borondate digitalaren bereizketa gauzatzen duen laburpen-taula:

EZAUGARRIAK	TESTAMENTU TRADIZIONALA	BORONDATE DIGITALA
Araudia	Kode Zibila	DPBLOren 96. art.
Helburu nagusia	Oinordetzaren kudeaketa	Eduki digitalaren kudeaketa
Edukia	Ondarea (dirua, etxebizitza, etab.)	Eduki digitala (sare sozialetako kontuak, hodeiko fitxategiak, etab.)
Formatua	Notario bidez edo legeak ezarritako baldintzetan. Ez da onartzen formatu digitalean egitea.	Ez da arautzen

7. Nork du eduki digitalerako sarbidea?

Legeak honako pertsona hauei aitortzen die eduki digitalerako zuzeneko sarbidea: hildakoaren familiako kideei, bikoteari, oinordekoei eta testamentu-betearazle edo albazeari (García, 2015). Era berean, hildakoak aukera izango du espresuki pertsona edo erakunde bat izendatzeko. Adingabeen kasuan, legezko ordezkariak edo Fiskaltzak izango dute sarbidea. Hildakoa desgaitasuna duen pertsona bat bada, haren laguntzaile gisa izendatua izan denak ere izango du sarbide-eskubidea, baldin eta laguntza-neurrian jaso bada.

Albazea digitalak ez du albazea tradizionalarekiko desberdintasunik, kudeatuko dituen ondasunen izaera izan ezik. Hortaz, eginkizunak berdinak izango dira ondasun digitalen edo ondasun ez-birtualen aurrean (Márquez, 2016). Ondorioz, azken horretarako aurreikusitako arauak aplikatu behar dira, bereziki: karguaren izaera pertsonala, borondatezkitasuna, doakotasuna eta behin-behinekotasuna.

Doktrinaren zati batek araudiak aitortzen duen legitimazio automatiko eta zabala kritikatu, eta legitimatuak hildakoak izendatu behar dituela adierazi du (Cámara, 2019). Izan ere, izendapen hori familia- edo bikote-harremanean oinarritzen da, eta egokiagoa izango litzateke hildakoak berak aukeratzea, bere borondatea argi adieraziz (Ginebra, 2020). Gehiegizkoa da *ex lege* horren legitimazio zabala aitortzea. Debekurik ezean, nahikoa da hildakoarekin familia- edo bikote-harremana

izatea. Oso larria da horrenbeste pertsona aldi berean eta modu zehaztugabeen legez legitimatu izendatzea. Beraz, kontrako sistema defendatzen da: arau orokor gisa sarbidea debekatuta egotea. Baimen automatikoa alde batera utzi, eta zuzeneko debekuaren aldeko hautua egin behar da.

Hildakoak bere eduki digitalaren xedeari buruzko jarraibideak utzi baditu, jaraunsleek horiek errespetatu beharko dituzte. Hartzen dituzten erabakiak ez dira arbitrarioak izango, hildakoaren nahiekin bat etorriko dira. Hildakoak zehaztuko du bere nortasun digitalak «bizirik» jarraitu behar duen ala hil ondoren ezabatu behar den. Beraz, borondate hori jasotzearen garrantziaren inguruan gizarte-kontzientzia handiagoa sustatzearen beharra azpimarratu behar da.

8. Borondatea jasotzeko instrumentu juridiko egoki bat

Nahiz eta DPBLOren 96. artikulua borondate digitala jasotzeko aukera eskaintzen duen, ez du zehazten zein tresna juridiko erabil daitekeen horretarako. Horrek lege-hutsune bat sortzen du, borondate digitalaren kudeaketa eraginkorra ukatzen duena (Martinez, 2019). Ez da existitzen eduki digitalaren *mortis causa* transmisioa gauzatzeko soluzio zehatz bat. Edukiak ondare izaera badu, ukaezina da oinordetzaren parte bihurtuko dela eta, beraz, oinordetzako arauak aplikatuko direla. Aldiz, konponbidea ez da horren erraza eduki digitalak izaera pertsonala duen kasuan.

Egun existitzen diren baliabide juridiko guztien artean, testamentu tradizionala da irtenbide posible nagusia, hildakoaren borondate digitala modu formalean eta egoki batean jasotzeko. Izan ere, testamentuak, beste dokumentu juridikoek ez bezala, ondare-izaerako edukiez gain, bestelako adierazpenak jasotzeko aukera ematen du (Cámara, 2019). Beraz, legeak beste instrumentu bat sortu bitartean, testamentu tradizionalan jaso daiteke borondate digitala, baina bi kontzeptu desberdin dira. Hala ere, irtenbide horrek zailtasun praktikoa handiak sortzen ditu (Díaz, 2020).

Arazo nagusia da kontu digitaletarako sarbidea pasahitzen bidezkoa dela, eta erabiltzaileek sarritan eguneratzen dituztela gako horiek (Micklitz *et al.*, 2013). Beraz, pasahitzak zaharkitu eta testamentuan adierazitakoa eraginkortasun gabe gera daiteke. Gainera, notariotzara testamentua «irakurtzera» doan orok lor ditzake kontu horietara sartzeko pasahitzak, eta horrek kezka handiak sortzen ditu hildakoaren informazio pertsonalaren pribatutasunari eta segurtasunari dagokienez. Egoera horrek egungo tresna juridikoak errealitate digitalera egokitze beharra azpimarratzen du, hildakoaren borondatea modu seguruan eta eraginkorrean errespetatzen dela bermatzeko.

Dagoeneko enpresa batzuek online plataformetako pasahitzen zaintza eta kudeaketa eskaintzen dute. Galdera da ea hori hirugarren batek edo notarioak berak kudeatu beharko lukeen. Enpresa ixten bada, ziurrenik pasahitz horietarako sarbidea galduko da, eta horrek indarrak gabe utziko luke kausatzaileak egindako bilketa-lana.

9. Ondorioak

Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoaren 96. artikuluan jasotako testamentu digitala testamentuaren figura tradizionaletik bereizi behar da. Borondate digitalak, titularraren heriotzaren ondoren, bere eduki digitala kudeatzeko aukera aitortzen du. Hau da arazoren oinarria: araudiak ez du eduki digitalaren ondare eta izaera pertsonala bereizten, eta hori funtsezkoa da. Borondate digitalaren kontzeptua abstraktua da oso, interpretazio juridiko zehatz bat exijitzen du.

Artikuluak hutsuneak dituen arren, aurrerapauso garrantzitsu bat izan da. 2018. urtera arte ez zegoen nahi hori adierazteko aukerarik. Oinarrian borondatearen autonomia identifikatzen da, eta helburua da titularrak bere eduki digitalen gaineko borondatea modu zehatzean eta seguruan adieraztea; ahotsa eman nahi izan dio legegileak. Hala ere, arazo nagusia mandatua nola jaso behar den zehaztea da. Hutsune horrek egungo tresna juridikoak egokitzeko beharra azpimarratu, eta titularren borondatea modu seguruan eta eraginkorrean betetzea bermatzeko gida bat aldarrikatzen du.

Beharrezkoa da borondate digitala zehatz-mehatz definitzeaz gain, hura sortu, aldatu eta betearazteko prozedura argia ezartzea. Hortaz, ezinbestekoa da eduki digitalaren kudeaketarako araudi espezifiko bat sortzea. Azken horren jomugak eskubide digitalak babestea izan behar du. Araudi argi baten gabeziak gatazkak sortu ditzake, hala nola oinordekoen, interesatuen eta plataforma digitalen artean, eta horrek zaildu egiten du eduki digitalaren kudeaketa. Hori dela eta, beharrezkoa da egungo tresna juridikoak egokitu eta lege-esparru berri bat sortzea.

Guztien artean, baliabide juridiko bat nabarmendu behar da: testamentu notariala. Nahiz eta borondate patrimoniala jasotzea duen xede, eduki digitala modu eraginkorrean kudeatzeko bide bat izan daiteke. Hala ere, sistema egokitu behar da. Egokitzapen horrek, besteak beste, pasahitzen eta plataforma digitalen kudeaketa arautzea ekarriko luke. Horrela, oinordekoen, interesatuen eta plataforma digitalen arteko gatazkak murriztu egingo lirarteke, eta hildakoaren borondatea errespetatu.

Nahiz eta borondate digitala 2018. urteko lege organikoan jasota dagoen kontzeptua den, oraindik gizartearen zati handi batek ez daki bere borondate digitala jaso dezakeenik testu juridiko batean. Honenbestez, funtsezkoa da kontzientzia sozial handiagoa sortzea, herritarrek beren eskubideak zein eremu digitaleko erabakiak nola hartu behar dituzten jakiteko. Etorkizuneko arazo juridikoak ekiditeko, ezinbestekoa da gizarteak eta erakundeek borondate digitalaren garrantzia ulertzea. Helburua garbia da: norbanakoak sortu duen errealtate digitalen etorkizuna, bere borondatearen arabera erabakitzea.

Egungo ondorioetatik abiatuta, aurrera egiteko bide bat identifikatzen da. Xedea hildakoaren borondate digitalen kudeaketarekin lotutako erronka juridikoei aurre egitea da. Indarrean dagoen oinordetza-araudia eta kontu digitalen sarbidearen eta kudeaketaren inguruko zailtasunak kontuan hartu, eta plan zehatz bat proposatzen da. Lan-estrategia honen helburua da hildakoaren borondatea eremu digitalean errespetatzea eta betearaztea. Horretarako, pasahitzak eta plataforma digitalen

kudeaketa modu egokian arautuko dituen lege-esparru egoki bat ezarri behar da. Honako hiru urrats proposatzen dira:

- 1. Pasahitzak kudeatzeko sistema seguru bat identifikatzea:** pasahitz horiek izateko arduradun bakar gisa albazea digital bat izendatu behar den aztertuko da. Era berean, pasahitzak maiz aldatzen direnez, eguneraketa nola bermatu ikertuko da.
- 2. Informazioaren gizarteko zerbitzuekin zuzeneko komunikazio-bide bat garatzea:** legitimatuen eta informazioaren gizarteko zerbitzuen artean zuzeneko komunikazio-bide egokitu bat sortzea. Egun zenbait sare sozialek komunikazioa ahalbidetzen duten arren, ez da sistema egokia. Bide egokitu horri esker, pertsona baten heriotza jakinarazi ahal izango litzateke, eta heriotza modu seguruan egiaztatu. Hildakoaren azken borondate digitala errespetatzea ahalbidetuko luke tresna honek.
- 3. Dokumentu eta erregistro propio bat sortu behar den aztertea:** lege-hutsunearen aurrean testamentua behin-behineko baliabide gisa identifikatzen bada ere, aztertu behar da instrumentu berezi eta zehatz bat sortzea beharrezkoa den ala ez. Izan ere, zenbait abantaila ekar ditzake, hala nola dokumentuaren indar juridikoa argitzea eta edukia zehatz-mehatz jasotzea. Era berean, Kataluniako adibidetik abiatuta, erregistroaren legezko izaera aztertu behar da.

Ikuspegi integral honek norabide argia eskainiko du borondate digitala behar bezala kudeatzeko. Horrela, hildakoaren eduki digitalerako sarbidea bermatu eta aldi berean haren pribatutasuna babestuko da.

10. Bibliografia

- Álvarez Lata, N. (2002). Algunas cuestiones sobre el contenido atípico del testamento. *Anuario da Facultade de Dereito da Universidade da Coruña*, (6), 113-132.
- Allegrezza, S. (2021). Il problema dell'eredità digitale nella trasmissione di archivi e biblioteche personali. *Bibliothecae. it*, 10(1), 352-400.
- Arenas Ramiro, M., eta Ortega Giménez, A. (2019). *Protección de datos : comentarios a la Ley orgánica de protección de datos y garantía de derechos digitales (en relación con el RGPD)*. Sepin.
- Banta, N.M. (2014). Inherit the Cloud: The Role of Private Contracts in Distributing or Deleting Digital Assets at Death. *Fordham Law Review*, 83(2), 799-854.
- Banta, N.M. (2017). Property Interests in Digital Assets: The Rise of Digital Feudalism. *Cardozo Law Review*, (38), 1099-1157.
- Batuecas Caletro, A. (2022). El derecho a la identidad y la identidad digital. *Anuario de Derecho Civil*, (3), 923-986.
- Bravo, F. (2016). Ubi societas ibi ius e fonti del diritto nell'età della globalizzazione. *Contratto e impresa*, (6), 1344-1390.
- Berrocal Lanzas, A.I., eta Abellán Salort, J.C. (2016). *Autonomía, libertad y testamentos vitales*. Dykinson.
- Cámara Lapuente, S. (2019). La sucesión mortis causa en el patrimonio digital. *El notario del siglo XXI*, (84), 138-144.

- Castillo Parrilla, J.A. (2018). *Bienes digitales: una necesidad europea*. Dykinson.
- Ginebra Molins, M.E. (2020). Voluntades digitales: disposiciones mortis causa. In E. Arroyo eta S. Cámara (argtz.), *El derecho privado en el nuevo paradigma digital* (209-235. or.). Marcial Pons.
- Conner, J. (2010). Digital life after death: The issue of planning for a person's digital assets a death. *Texas Tech Law School Research Paper*, 10, 1-23.
- Díaz Alabart, S. (2020). *La protección de los datos y contenidos digitales de las personas fallecidas*. Reus.
- Díez-Picazo, L., eta Gullón Ballesteros, A. (2006). *Sistema de Derecho Civil Volumen VI Derecho de Familia*. Tecnos.
- García Herrera, V. (2017). La disposición sucesoria del patrimonio digital. *Actualidad civil*, 7(8), 74-82.
- García Jociles, U. (2018). Herencia digital: Comentario a la Sentencia del Bundesgerichtshof alemán de 27.08.2020. *Derecom*, 31, 153-165.
- García Lamarca, C. (2015). Albaceas digitales: ¿Cómo gestionar nuestra herencia on line? *Escritura Pública*, (93), 18-21.
- Lacruz Berdejo, J.L., eta Sancho Rebullida, F.A. (1988). *Derecho de Sucesiones*. Bosch.
- Landa Reza, I. (2024). *El consentimiento de las personas mayores con discapacidad para el tratamiento de sus datos relativos a la salud*. Atelier.
- Martinez Martinez, N. (2019). Reflexiones en torno a la protección post mortem de los datos personales y la gestión de la transmisión mortis causa del patrimonio digital tras la aprobación de la LOPDGDD. *Derecho Privado y Constitución*, (35), 169-212.
- Micklitz, S., Orlieb, M., eta Staddon, J. (2013). I hereby leave my email to: Data Usage Control and the Digital Estate. *I Privacy Workshops*, 43-44.
- Moralejo Imbernón, N. (2020). El testamento digital en la nueva Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales. *Anuario de derecho civil*, 241-281.
- Muñoz Feliu, M.C. (2015). *Reputación online y huella digital*. Tirant lo Blanch.
- Navas Navarro, S. (2020). Herencia y protección de datos de personas fallecidas: a propósito del mal denominado testamento digital. *Revista de derecho privado*, (1), 59-88.
- Oliva León, R., eta Valero Barceló, S. (2016). *Testamento ¿Digital?* Juristas con futuro.
- Ordelin Font, J.L., eta Oro Boff, S. (2020). Bienes digitales personales y sucesión mortis causa: la regulación del testamento digital en el ordenamiento jurídico español. *Revista de derecho Valdivia*, (3), 119-139.
- Otero Crespo, M. (2019). La sucesión en los bienes digitales. La respuesta plurilegislativa española. *Revista de Derecho civil*, (4), 89-133.
- Pérez Vallejo, A.M., eta Vivas Tesón, I. (2020). *La transmisión mortis causa del patrimonio intelectual y digital*. Aranzadi.
- Resta, G. (2007). Identità personale e identità digitale. *Il diritto dell'informazione e dell'informatica*, (3), 511-531.
- Santos Morón, M.J. (2018). La denominada Herencia Digital: ¿Necesidad de Regulación? Estudio de Derecho Español y Comparado. *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 413-438.
- Serrano Gómez, R. (2005). Derechos que se adquieren con el nacimiento de la persona humana. *Temas Socio-Juridicos*, (49), 43-50.
- Varela Quesada, V.J. (2015). ¿Existe vida en la nube tras la muerte? ¿Qué pasará con tus archivos y amigos virtuales cuando mueras? *Cuadernos de atención primaria*, (1), 54-55.

